

GURE IRAKURGELA

MUNDUAREN HARMONIA

Manu Lopez Gaseni

Xosé Neira Vilas (Gres, Pontevedra, 1928) idazle galegoak urte asko daramatza umeentzako ipuinak idazten, 1962an “Memorias dun neno labrego” (1988an Labayruk “Mutiko baserritar baten oroitzapenak” izenburuarekin euskaratua) bere libururik ezagunena idatzi zuenetik. Ameriketan ibili ostean, bere herrian bizi da egun, bere izena daraman fundazioaren ardurapean.



Liburua:
“Txorimalo kutuna”
Egilea:
Xosé Neira Vilas.
Itzultzailea:
Pako Aristi.
Marrazkilaria:
Xaquin Marin.
Argitaletxea:
Elkar, 2007.

Oraingoan Elkar argitaletxearen eskutik argitaratu duen “Txorimalo kutuna” hau haurrentzako obra xume xaloe da, amaierara arte umerik erabili gabe atondua. Protagonista beldur emalle eta ororen uxatzaile patuari uko egiten dion txorimalo da, osaba Erramunek pikuak babesteko eraikia. Ontasun neurrigabea erakutsiz, zozoen adiskide egin da lehenbizi; izen aldakorra duen txakurrarena, gero; kilkerrarena geroago; eta, azkenik, katuaren adiskide. Mundua ezagutzeko gogoak

bultzatuta, hegan hasiko zen, eta bere badaezpadako bizia eman zuen bi mutiko behartsuri zertxobait laguntzearen. Edozein umek erraz irakurtzeko moduko zortzi atal laburren bitartez, Neira Vilasek harmonia unibertsala aldarrikatzen du: etsairik gabeko mundua, denek elkarri laguntzen dioten mundua, batzuen heriotza datozenen bizigai bilakatsen duen mundu-ikuskeraz ziklikoa.

Liburu atsegin honen itzultzailea Pako Aristi idazlea izan da, eta irudiak Xaquin Marinen eskutik joan dira.